

Liburutegia

PILAR IPARRAGIRRE



Danzas morris, origen y metáfora

**Juan Antonio
Urbeltz**

PAMIELA

214 orrialde

18,75 euro

Mozorro eta zomorroen lotura

Folkloreko dantzen atzean ezkutatu den sinbologia ugaria aztertzen ohi du Juan Antonio Urbeltzek. Pamiela argitaletxearen eskutik plazaratu duen *Danzas morris, origen y metáfora* liburuan tesi iraultzailea azaltzen du: bere ustez gizateriak milaka urte daramatzen inauterietako mozorroak erabiltzen eraso ohi duten zomorroen izurriteak saihestu ahal izateko. Ingalaterrako *Morris man*-en kas-kabildo-soinua eta Ituren eta Zubietako inauterietako *isopuak* eta *joareak* ditugu teoria honen adibide. Urbeltzentzat, Lantzeko *zaldikoak* oti izurritearen irudikapena baino ez dira. Eta gauza bera

gertatzen da Zuberoako *zamatxainarekin*. Miel Otxin, bestalde, zomorro izurrite hauen ondoren datorren gosearen irudikapena litzateke. **I**



Domenja de Oñate

Mila Beldarrain

TARTALO

364 orrialde

23,50 euro

XV. mendeko Donostiako emakumeei buruzko nobela

Mila Beldarrainen *Domenja de Oñate*-k XV. mendeko Donostia hiribilduan bizi den familia aberats bateko alaba du kontalari. 14 urterekin ezkontzen dute Burgosko jauntxo baten semearekin, eta hara joango da bizitzera, Isabel eta Fernando erregina-erregeen gortea ezagutuz. Senarra hiltzen zaionean itzuliko da Donostiara. Berrogei urteko alarguna izaki, garaiko gizarteak komentu batean sartzeaz bestelako irtenbiderik ez dio emango. Domenja borrokalaria da ordea, eta ahaleginduko da aitaginarrebaren anai batek kendu dion herentzian utzitako gaztelua bere eskutara itzul dadin; bitartean, poemak idatzi, eta ezagutu dituen emakume berezi batzuekin emakumeentzako ikastetxe bat irekiko du Donostian. Baina Inkisizioari egin beharko dio aurre. **I**

Ikaslea, maisuz maiteminduta

Hamahiru urtetik gorakoei zuzendutako nobela da Antton Kazabonen *Atearen atzean*. Institutuko ingeleseko irakasleaz maitemintzen den neskatilaren istorioa agertzen du. Neska horrek, hain kartsuki sentitzen duena pizten nabaritu orduko, bertan behera utziko du ordura arte bere adineko batekin edukitako harremana, arrazoiak garbi agertu gabe, bere bihotzeko irakasleak harekiko sentitzen duenaz ezer ez dakielako oraindik. Baina erantzuna baiezkoa izatea espero duenez, gauzak diren bezala azalduko dizkie mutil ohiari eta lagun min bati. Biak sumindu egingo zaizkio eta neskaren amari azalduko diote. Eta guztiak izango ditu haserre. Nola liteke bera baino hogeitazaharago den gizonaz ezer onik espero izatea? Eta bada oraindik ez dakien beste zerbait ere: irakaslea homosexuala da. **I**



Atearen atzean

Antton Kazabon

ELKAR

88 orrialde

7,30 euro

Dibortzioaren ondotik etxea

Finlandia saria eta Europako Iparaldeko Kontseiluarena eskuratuak ditu Kari Hotakainen (1957) idazle finlandiarraren *Camino de trincheras* eleberri umoretsuak. Eztabaida bizi batean bere emazteari aurpegian jotzen dion ukabildada baten ondorioak jasaten ditu protagonista nagusiak. Ordurarte etxeko gorabeheraz eta daukaten alaba txikiaren zaintzaz bera bakarrik arduratu bada ere, kolpea jasan orduko, emazteak haurra hartu eta utzi egingo du, dibortzioa eskatzeko erabaki sendoarekin. Lur jota, bere familia berrosatzeko planari ekiten dio gizonak: zer eskatzen zion beti emazteak? Bere ametsetako familia bakarrentzako etxea aurkitzeko! Eta horren atzetik abiatuko da itxaropentsu, horretarako dirudik ez daukala ahaztuta, eta higiezin agentziek zein altxor haien jabeek jartzen dizkioten oztopoei muzin eginez. **I**



Camino de trincheras

Kari Hotakainen

MEETOK

336 orrialde

19 euro



Euskal Herria
Batzuen artean

SUA
130 orrialde
5,30 euro

Euskal Herriko ur-jauziak bisitatzeko

Sua argitaletxeak plazaratu ohi duen *Euskal Herria* aldizkariaren azken zenbakian, Euskal Herrian bertan dauzkagun ur-jauziak bisitatzeko egin ditzakegun zenbait ibilbide eta paseo iradokitzen zaizkigu, beti ere argazki liluragarrien laguntzaz. Belabarze, Arrako, Kakueta, Xorroxin, Urederra, Erroiarri, Aldabide, Goiuri edo Nerbioi bezalakoak, Sintxita, Uguna, Irusta, Belako Harkaitzetan dagoena edo Osinberekoa proposatzen dituzte aldizkarian. Bestalde, Mundumira izeneko hitzordurako gutxi falta dela-eta, ekainaren aurreneko asteburuan Aretxabaleta eta Debagoiena abia-

puntu izango dituzten mendi eta kale ekitaldietarako deia ere luzatzen dute. |

Lo egiteko garaian ezkutaketan jolastu nahi duenari gertatua

Ezusteko polit askoak izango ditu *Bubuk ez du lorik egin nahi* esku artean hartzen duenak, makina bat sorpresatxo ezkutetzen baititu barruan. Lo egiteko garaian ezkutaketan jolaste-ko gogoia duen mutiko bati gertatutakoa azaltzen du. Lagunen bila hasiko da, eta inork ere ez dio erantzungo. Zergatik? Oihaneko beste guztiak seko lo daudelako. Lagunen den-denak ezkutatu zaizkio: harkaitz baten azpian, zuhaitzaren enborrean, sasiarteetan...

Bubuk ez du lorik...

Cyril Hahn

IBAIZABAL

14 orrialde / 14,50 euro



FERNANDO REY

«Halabeharraren eta hautuen gaineko gogo-eta dago narrazioetan»

Aurkez dezakezu Antonio Tabucchi?

Gaur egungo idazle italiar ezagunena da, segur aski. Dударik gabe Europako literaturaren ahots adierazgarrienetako bat. Oso ezaguna bere obragatik –sari asko irabazia da–, eta baita demokraziaren eta askatasunen defentsan hartutako jarreragatik ere. Tabucchiaren ustez, zenbait momentutan ahotsik gabekoen ahotsa izan behar du intelektualak, politikarien eta egia osoa balute bezala hitz egiten dutenen aldean, iritzi publikoan zalantzak sortu. Gure gizarteari auzi kezkarriek dagokienez, intelektualaren zereginean eskubide bat aldarrikatzen du: jarrera bat hartzekoa eta, beharrezkoa denean, alarma-deia egitekoa.

Asko nabarmendu al da maila horretan?

Bai. Hamaika aldiz, hitzarengatik jazarpena jasaten duten idazleen defentsan. Totalitarismoaren eta torturaren kontra ere goratu du maiz ahotsa. *Pereirak dioenez* borroka horien ikur bihurtu da, noski.

Zer esan diezaigukezu *Oker ttiki garrantzigeak*-ez?

Ez da Tabucchiaren liburu ospetsuenetakoa, baina kontakizun sail ederra da. Lehenbiziko irakurrian, bidaiari etsituen abentura existentzialak ematen dute, baina narrazioaren eta bizitza egiazkoaren arteko antzekotasuna dela-eta, ezinegona eragiten digute. Istorio hauetako bidaiariak, erabakiek eta kasualitateek baldintzaturik, arranguraz egiten dute aurrera, bizitzaren tolesetan zer gordetzen den jakiteko ahaleginetan. Funtsean, halabeharraren eta hautuen gaineko gogoeta dago narrazioetan, existentziaren zirrikietan barneratze saioa. Sentsazio eta iradokizun irekiak uzten dizkiote irakurleari.



ANDONI CANELLADA / A.P.

Antonio Tabucchiaren hamaika istorio bitxi

Fernando Reyk euskaratu du Antonio Tabucchiaren *Oker ttiki garrantzigeak*. Ez

da hau itzultzaile iruñarrak idazle italo-portugaldarraren lanen bat euskarara bihurtu duen lehen aldia. Aurretik *Pereirak dioenez* (Igela, 2006) itzulia zuen. *Oker ttiki garrantzigeak* izenburuko liburuan hamaika kontakizun bitxi daude bilduak. Gaizki-ultuak, zalantzak, berandu-ultuak, alferreko intziriak, oroitzapen apika engainagarriak... konponbiderik gabeko hutsegiteak islatzen dituzten narrazioak dira. Bukaera, berriz, iradokizunez bete izan arren, irekia daukate beti, iradokizun horietatik irakurle bakoitzak atera dezakeen ondorioa esperoko balute bezala. Toskana sekretu eta sorgindua, Miarrizetik Donostiara bitartean igaroko den garai bateko auto klasikoaren rallya, Mumbaitik Madrasera

egileari galdezka



Oker ttiki
garrantzigeak

Antonio Tabucchi

ALBERDANIA, ELKAR

192 orrialde

11,30 euro

doan tren batean egin daitezkeen ezagutzak, haur baten barnean gorde daitezkeen maltzurra beste haur baten begietatik ikusia... gaiak eta gertakizunetarako hautatutako paisaiak oso ezberdinak dira. Baina denek kutsatzen dute ezinegon kezkatu moduko bat. Laburbilduz: umorerik falta ez duten istorio hunkigarriak dira, bihotzean iltzatzen zaizkizun horietakoak. ■